



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ XEDAPEN OROKORRA PRESTATZEARI BURUZKO KONTSULTA PUBLIKOA EGITEN BAITA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO ESKOLA-JANTOKIKO ZERBITZUA ARAUTZEKO HONAKO HEZKUNTZA-MAILA HAUTAKO IKASLEENTZAT: HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKO HIRUGARREN MAILA, HAUR HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOA ETA DERRIGORREZKO HEZKUNTZA MAILAK.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2000ko martxoaren 22ko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako derrigorrezko hezkuntza mailetako eta Haur Hezkuntzako (2. zikloa) jantokiak arautzen ditu.

Hezkuntza Sailak uste du beste xedapen orokor bat egin behar dela, eskolako jantoki-zerbitzua arautuko duen agindu berria argitaratzeko.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua arautzen du herritarrei alde aurretik egin beharreko kontsulta.

Halaber, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 133.1 artikuluan ezartzen duenez, xedapen arautzaile baten proiektua egin aurretik, kontsulta publikoa bideratuko da administrazio eskudunaren web-atariaren bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsonak eta erakunderik ordezkagarriek.

1.- Arau-ekimen honekin konpondu nahi diren arazoak.

Lehenik eta behin, detektatu da ikasleen ehuneko handi batek eskola-garraiorako eskubidearen onuraduna izatea eskatzen duela, jantokiko kuota murriztua lortzeko, besterik ez, baina garraioa erabili gabe. Jarduera hori honako printzipio hauen aurkakoa da: ezarritako helburuak eraginkortasunez betetzea; ekonomia, nahikotasuna eta baliabideak helburu instituzionaletara zorrotz egokitzea; baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientziaz jokatzeko (printzipio horiek Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean deskribatuta daude). Gainera, Hezkuntza Sailak badaki eskola-jantokiko kuota murriztuaren eta garraioaren arteko lotura familien arteko desberdintasunak eta gatazkak sortzen ari dela. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da araudia aldatzea, arazo horri ahalik eta irtenbiderik onena emateko.

Ondorioz, jantokiko kuota murriztua izateko eskubidea eta eskola-garraiorako eskubidea bereizi behar dira, eskubide independenteak izan daitezen. Egin nahi den aldaketaren helburua da eskubide bakoitzaren aitortzea zerbitzu bakoitzaren ezaugarrietan eta eskakizunetan soilik oinarritzea.

Bigarrenik, ikusi da egungo araudiak ez dituela jasotzen jantokiko arduradunaren eginkizunak. Funtzio horiek garapen-araudiak jasotzen ditu. Aipatutako funtzioen deskribapena, egungo erregelamendu-araudian, gatazkak eta hainbat interpretazio sortzen ari da. Egoera horrekin amaitzeko eta eginkizun horiek argi eta zehatz





mugatzeko, espero da horiek arau-xedapen berrian sartzea. Gainera, deskribapen horrek berekin dakar sukaldeko langileen funtzioak berrikustea.

2.- Araua onartzeko beharra eta egokitasuna

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan zehazten denez, honako hauek dira hezkuntza-sistemaren printzipioak: ikasle guztientzako kalitateko hezkuntza, haien zirkunstantziak eta egoera edozein direlarik ere; ekitatea, hezkuntzaren bidez pertsonalitatea osoki garatzea bermatuko duena; hezkuntza-inklusioa; eskubide eta aukera berdintasuna, edozein diskriminazio gainditzen laguntzeko; eta hezkuntzaren eskuragarritasun unibertsala, ezberdintasun pertsonalak, kulturalak, ekonomikoak eta sozialak konpentsatzeko, desgaitasunen ondoriozkoei arreta berezia eskainita. Hori dela eta, hezkuntza-administrazioek hezkuntzarako eskubidea baliatzeko baldintzak ezarri behar dituzte aipatutako arau eta printzipioen arabera.

Bestalde, egungo gizarte-errealitateak, lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko gero eta premia handiagoarekin batera, azken urteotan areagotu du eskola-jantokiko zerbitzuaren eskaera handia, eta gaur egun familia askok zerbitzu osagarri hori kalitatezko hezkuntza-sistemari lotutako ezinbesteko elementutzat hartzen dute. Horregatik, zalantzarik gabe, eskola-jantokiko zerbitzua hezkuntza-administrazioak bere gain hartu behar dituen betebeharren artean dago.

3.- Egin nahi den arau-proiektuaren helburuak

Agindu-proiektu honen xedea da arau berri bat egitea eta onartzea, lehenengo atalean azaldutako egoera problematikoei erantzuteko.

4.- Egon daitezkeen ordezkoko irtenbide erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik

Arauzko prozedura hau beharrezkoa da eskola-garraiorako eskubidea eta jantokiko kuota murriztua lortzeko eskubidea bereizteko, bai eta jantokiko arduradunaren eginkizunak argi eta garbi arautzeko ere.

Gaur egun indarrean dagoen araudian bi eskubide horiek lotuta daudenez, egin nahi den bereizketa ezin da gauzatu ordezkoko irtenbide erregulatzailerik edo ez-erregulatzailerik bitartez. Beharrezkoa da araudia aldatzea.

Jantokiko arduradunaren eta sukaldeko langileen eginkizunen deskribapenari dagokionez, berdintasun-printzipioa bermatzeko, ez dago ordezkoko irtenbide erregulatzailerik edo ez-erregulatzailerik.

Beraz, beste agindu-proiektu bat izapidetzen hastea erabaki da, proiektatutako legegintza-ekimena arau-esparrua osatzeko egokiena dela iritzita.

Horregatik guztiagatik, kontsulta:



- Irekitzen da erakunde publiko eta pertsona fisiko guztientzat, baita arauzko erregulazio honek ukitzen dituela uste duten erakunde, entitate edo elkarteentzat ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratuko da.
- Hamabost eguneko epea ezarri da, ukitutako erakundeek, herritarrek eta haien entitateek egoki iruditzen zaizkien iradokizunak eta oharrak aurkez ditzaten.

Kontsulta publikoaren izapidea da, beraz, une honetan bideratzen ari garena, aurreikusitako lege-eskemari jarraituz. Arau-proiektua egin aurretik gauzatuko da kontsulta hori, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legeak ezartzen duenez.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak esleitzen dizkidan eskumenekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. - Agindu-proiektua egin aurretiko kontsulta publikoa egitea; agindu-proiektu horrek, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eskola-jantokiko zerbitzua arautuko du honako hezkuntza-maila hauetako ikasleentzat: Haur Hezkuntzako lehen zikloko hirugarren maila, Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta derrigorrezko hezkuntza mailak.

Bigarrena. - Arauak ukitutako herritarrek eta erakundeek, hala nahi badute, beren iritziak helarazteko modua izango dute agindu honen eranskinean azaltzen diren gaiei buruz, hamabost eguneko epean, kontsulta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

JOKIN BILDARRATZ SORRON
HEZKUNTZAKO SAILBURUA